

## Miren Serranok irabazi du Mondragon Unibertsitatearen argazki lehiaketa

2009/12/04

Mondragon Unibertsitateak jakinarazi du nork irabazi duen argazki lehiaketa, Euskara eta unibertsitatea, Euskararen eguna zela-eta antolatua. Irabazlea **Miren Serrano** da, HUHEZIKo ikaslea. Miren Irakasle ikasketak egiten ari da, Atzerriko Hizkuntza 3. maila, eta hitz joko bat proposatzen du bere argazkian, uraren eta errearen arteko hitz jokoa, "urrez urrezta dezagun gurea". Argazki saritua, Urrezko hizkuntza. Irabazleak ordenagailu eramangarri bat jaso du, *netbook* erakoa.

Publikoaren saria, bestalde, **Iñaki Aranburuk** irabazi du, Goi Eskola Politeknikokoa: bazkaria bi lagunentzat fakultateko tabernan.

### Epaimahaia

Guztira **33 argazki** aurkeztu ziren lehiaketara. Epaimahaia, berriz, honako kide hauek osatu zuten: **Arantxa Gonzalez de Heredia** (GEP), **Idoia Peñakoba** (Errektoretza), **Itziar Urteaga** (Emun) eta **Yera Sanchez** (HUHEZI).



Lehen saria MUren argazki lehiaketan from huhezi on Vimeo.